

EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN EBALUAKETA TXOSTENAREN SINTESI ELEMENTUAK

Aitzin-solasa

Euskararen Erakunde Publikoak, haren berriztatzearen prestatzeko, Estatuko zerbitzuei ikuskatze lan bat galdegin zien, EEPren lana ebalua zezaten.

Ikuskatze lan hori Barne Ministeritzako, Kultura eta Komunikazio Ministeritzako eta Hezkunde Nazionalako Ministeritzako hiru ikuskarik eraman dute. Horretarako, EEPren kide eta partaideen artean 45 pertsona solastatu dituzte.

Ikuskatze lan horren helburua ez zen lan administratiboaren edo kontuen begiztatzea, ez eta ere EEPk bere ekintzak nola obratzen dituen eta ondorioak zein diren sakonki ikertzea, baizik eta 2004ean botere publikoek sortu tresnaren egokitasunaren neurtzea tresna horri eman zaizkion misioak azterturik, gero hainbat gomendio egin ahal izateko gisan Interes Publikoko Elkartearen berriztatzeari begira.

I. Ikuskarrien txostenak, Euskararen Erakunde Publikoak obratu lanaz, kide-sortzaileen eta partaideen atsegín orokorra agerian uzten du...

Izatez, Euskararen Erakunde Publikoak bere sortzaileen helburuei erantzun du:

- abiatua izan den Hizkuntza Politikari hats berri bat emanez, obratze metodo eraginkor eta egoki batzuen bitartez
- egituraren sortzaileen parte hartzea bermatzen duen funtzionamendu mota bat plantan jarriz
- irakaskuntza mailan, Hezkuntza Nazionala eta Kontseilu Orokorraren artean egin den hitzarmena gauzatzuz eta bizi-araziz
- elkarrekin dituen harremanak arrazionalizatuz eta harreman horien gardentasuna areagotuz
- hizkuntza politikan eskudun diren Euskal Autonomia Erkidegoko aginteekin partaidetzak egituratuz

II. ... hizkuntza politika eraginkor baten obratze lanean, erakundeak aurkitu mugak azpimarratuz

Ikuskarrien lanak bereziki azpimarratu du EEPren bereizgarrietatik batzuk direla **subsidiarioritasun printzipioa eta palanka-efektua baten xerkatzea hizkuntza politikaren obratze lanean**. Baina agerian utzi du ere printzipio horien gauzatzeko baldintza nagusia dela, Erakundeak berak animaziorako baliabide aski ukan dezan.

Hizkuntza politikako eremu guzientzat baliabideak ukan ezean, Erakundeak ezin izan die erantzun agertu zaizkion ekimen aukera guziei.

Gisa honetan, ikuskarrien lanak ondorioztatu du **lan-taldearen azkartzea** ez dela hartu behar erakundearen funtzionamendu gastuen emendaketa bat bezala, baizik eta eskakizun orori erantzuteko gisako animazio gaitasunen emendaketa bat bezala. Zentzu horretan, lehentasun bat dela azpimarratzen du.

III. Misioak zenbait gomendio egin ditu ere Erakundearen jardunaren azkartzeko

Gomendioak ondoko hauek dira : lehenak tresnaren luzapenari eta honi ekarri beharreko egokipenari buruzkoak dira, honen jarduera gaitasunaren azkartzeko. Bigarrenak, hizkuntza politikaren obratzeari buruzkoak dira.

- Tresnaren luzapenari dagokionez, Erakundearen kide sortzaileen artean kontzientzia bada, eta Erakundearen "**jatorriko adostasuna**" mantenduz egin behar da luzapen hori.

Horretarako, 2010-2016 epealdirako, misioak ondoko gomendioak egiten ditu :

- **Interes Publikoko Elkargoaren hautua berretsi du gainerateko aukera juridikoen aldean, IPEak** kide sortzaileen parte-hartzea babesten duelako eta oraindik "gazte" den egiturari egoki zaiolako
- **Hitzarmen sortzaileari egokitzapen mugatuak ekartzea gomendatzen du** (elkargoaren izen ofiziala eta langilegoaren estatutuei buruz,...)
- **Erakundearen kide nagusien** (Estatua, Eskualdea, Departamendua) **arteko orekak babestea gomendatzen du**, araudi eskubideen eta diru-ekarpenen banaketan haritik
- **Gobernamenduko komisarioaren betebeharraren argitzea aholkatzen du, eta Frantsesa eta Frantziako Hizkuntzen Ordezkaritza Nagusiak, EEPri begira duen misioaren zehaztea gomendatzen du.**

- Hizkuntza politikaren obratzea, 2006an onartua izan den Hizkuntza Politika Proiektuak definitu koadroaren baitan eraman da. Haatik, bertan azaldutako helburu guztiak ez dira beteak izan orain arte, eta ez daiteke pentsa osoki beteko direnik irekitzen den epealdi berri horretan. Horregatik, EEPk, eraman lanaren auto-ebaluaketa bat egin du 2009an; honen emaitza Jokabide Esparru baten proposamenaren idazketa izan da. Dokumentu hori Hizkuntza Politika Proiektuaren obratzeko bide-orri errealista da, subsidiariorotasun printzipioaren baitan eta palanka-efektuaren xerkatze sistematikoan oinarritzen dena.

Dokumentu horren norabide nagusia honako hau da: erabilpenaren eremuetan indartze bat kausitu, transmisioaren eremuetako esku-sartzea egonkortuz.

Ikuskaritza misioak hautu hau berretsi du. Hala, kideei gomendatzen die desmartzaren onartzea eta beharrezkoak diren neurrien hartzea, ondoko aholkuak eginez :

1. Baliabideen kudeaketa eta banaketa :

- Politikaren obratzean, lehentasunen hautaketa zehatza
- Animazio baliabideen azkartzea
- Beren ardurapeko gaietan, kideen mobilizatzea (ad : euskararen presentzia ikus-entzunezko hedabide publikoetan, kolektibitateen langileen formakuntzan).

2. Gauzatu behar diren lehentasunak eta norabideak :

- Transmisio eta erabilpen eremuen arteko orekaren berrezartzea
- Erabilpen eremuetan, gazteer zuzendu (baina ez bakarrik) eta atsegina sortzen duten eremuen lehenestea.

3. Kideek hartu beharreko neurriak :

- Estatuko zerbitzu ezberdinen partetik, jakitate berezien eskuratzeko aukerak hobetu
- Euskal Kultur Erakundearekilako harremanak azkartu
- Tokiko aginteekilako partaidetzak garatu
- Aholku Batzordeko kideekilako elkarraditzea egituratu.